

Udabeko eta Doneztebeko XIX. mendeko euskal bertso-sorta argitaragabe bana ekarri ditugu lan honetara. Udabekoetan, neska batzuen jokamolde laxoa kritikatzan da. Doneztebekoetan, maisuak hainbat emakume haurdun utzi izana. Bertsoen testuingurua azaldu dugu, edizio-irizpideak finkatu, eta testu editatuak ekarri. Bertsoak idatziz ere ibili zirela ikusi dugu, eta Lehen Euskara Modernoko erdialdeko aldaera linguistiko prestigiotsuak Nafarroako bertsolaritzara ere ailegatu zirela erakutsi.

Giltza-Hitzak: Bertsolaritza. XIX. Mendea. Euskara. Udabe. Doneztebe. Nafarroa. Edizioa.

En este trabajo presentamos dos colecciones inéditas de versos vascos del siglo XIX de Udabe y Doneztebe/Santesteban. Los versos de Udabe critican el comportamiento licencioso de dos mujeres y los de Doneztebe, el hecho de que el maestro de escuela dejara embarazadas a varias mujeres. Describimos los contextos de los versos, establecemos los criterios de edición y editamos los textos. Demostramos que los versos se difundieron también por escrito, y que la prestigiosa variedad central del euskera de la Primera Edad Moderna llegó también a la versificación navarra.

Palabras clave: *Bertsolaritza*. Siglo XIX. Euskara. Udabe. Doneztebe/Santesteban. Navarra. Edición.

Nous présentons ici deux recueils inédits de vers basques du XIX^e siècle d'Udabe et de Doneztebe/Santesteban. Les vers d'Udabe critiquent le comportement licencieux de deux femmes et ceux de Doneztebe, le fait que le maître d'école ait provoqué la grossesse de plusieurs femmes. Le travail a consisté à décrire le contexte, à fixer les critères d'édition avant d'éditer les textes. On a pu démontrer que les vers ont également été diffusés par écrit et que la prestigieuse variante centrale du basque du Premier Âge Moderne a également atteint la versification navarraise.

Mots-clés : *Bertsolaritza*. XIX^e siècle. Euskara, langue basque. Udabe. Doneztebe/Santesteban. Navarre. Édition.

Bi euskal bertso-sorta XIX. mendeko Nafarroan: Udabe eta Doneztebe*

(Two Basque verse collections in the 19th-century Navarre: Udabe and Doneztebe/Santesteban)

Santazilia, Ekaitz

Nafarroako Unibertsitate Publikoa (UPNA/NUP). Giza eta Hezkuntza Zientzien Saila. Arrosadiko campusa z/g. 31006 Iruñea (Nafarroa)

ekaitz.santazilia@unavarra.es

<https://orcid.org/0000-0003-1158-821X>

Urrizola Hualde, Ricardo

Ikertzaile independentea

arbizuar@hotmail.com

<http://doi.org/10.61879/riev691zkia202406>

Jasoa: 2023-04-24

Onartua: 2024-01-08

BIBLID [eISSN 2952-4180 (2024), 69: 1]

*Ikerketa hau Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak diruz hornitutako «Monumenta Linguae Vasconum 6: avances en cronología de la historia y la prehistoria de la lengua vasca» proiektuaren barnean dago (MICINN, PID2020-118445GB-I00). Askok zor diegu, bestalde, Juan Aleman Astitzen ohar zorrotzei. Hutsak, ordea, gureak baino ez dira.

1. Sarrera

Nafarroako Errege Artxibo Nagusian gordetako auzibide banatan euskarazko koplak batzuk daude, orain arte argitara eman ez direnak¹. Auzi bat Basaburu Nagusiko Udaben jazotakoa da, eta Donezteben, Malerrekan, bestea. Udabekoan, herriko bi neskatxaren jokamoldearen kontrako koplak kantatu zituzten herri hartako mutil batzuek. Donezteben, ordea, herriko maisuari paratu zizkioten bertsoak, sei emakumerekin oheratu baitzen, ezkontzatik kanpo, bistan dena.

Lan honetan koplak horien edizioa dakargu. Lehenik, edizio-irizpideak zerrendatu ditugu. Ondoren, hala Udabeko bertsoetan nola Doneztebekoetan, auzibidetik ateratako testuingurua eman dugu, dokumentuaren nondik norakoak zehaztu, eta testuen edizioa egin dugu buruenik. Lanaren hondarrean ondorioak, erreferentzia-zerrendak eta testuen irudiak heldu dira.

2. Edizio irizpideak

Bi auzibideetako koplak edizioa atontzeko, irizpide berak erabili ditugu.

- Testu guztietan transkripzio paleografikoa egin dugu, baina testua hobeki uler dadin, puntuazioa gaurko moldera ekarri dugu. Hitzak banaketa ere gaurkotu dugu, bilkuretan aldaketa fonologikorik gauzatu ez denean.
- <u> eman dugu beti grafemak hots bokalikoa islatzen duenean, eta <v> kontsonantikoa denean.
- Oin-oharretan, zuzenketak eta testua hobeki ulertzeko iruzkinak eman ditugu.
- Laburdurak luzatu dira eta gehiketak ere parentesi karratuen artean eman ditugu. Bere horretan utzi dugun laburdura bakarra *vmd. da (vuestra merced)*, frankotan ageri baita.
- Erdarazko testuetan, tiletak egungo moldean eman ditugu.

3. Udabe (1831)

3.1. Testuingurua

Auzibidearen dokumentazioak, zoritxarrez, deus gutxi dio koplak edukiaz; izan ere, auzia ez zen koplak horiek ondu eta kantatzeagatik abiatu. Egia esan, aspaldi zebilen Udabeko gazte talde bat bazterrak inarrostean. Koplak paratzeaz eta Udaben errondan kantuan ibiltzeaz gain, Kilimin etxeke gurdi bat ere ebatsi omen zuten, eta herritik kanpo utzi, besteak beste².

¹ Guk geuk ezagutzera eman ditugu jadanik, *Ttipi-ttapa* aldizkariaren 833. eta *Pulunpe* aldizkariaren 233. eta 234. zenbakietan. Sarri, *Bertsolari* aldizkarian ere izanen da horien berri.

² Auzibide honen orriak ez daude zenbakituta; horregatik, ez ditugu aipatu.



1. irudia. Udabeko Borborena (Borborea, gaur egun). 2023-04-21. Arg.: R. Urrizola

Kinka hartan, Udabe-Beramendiko errejidore nagusiak, Beramendiko Bengoetxeko Migel Aginagak, zortzi gazte udabear preso hartu zituen 1831ko urriaren 30ean: Borboreneko Martin Jose Auza; Errotako, Borboreneko eta Dorreko mutilak; Kasimiro Beramendi harginaren dizipulua, Juan Jose izenekoa; Jose Benito eta Martin Esteban Goñi anaiak, eta Manuel Antonio Beramendi. Azken hori berehala utzi zuten aske, haren aurkako frogarik aurkitu ezinik. Gainerakoak biharamunean askatu zituzten, isuna pagatuta. Martin Jose Auzak, ordea, errurik ez zuela zioen; bestek asmatutako bertsoak kantatzen baizik ez zela ibili, hori ez zela legez kanpokoak, eta ez zuela pagatuko. Gainera errejidoreei ere zakar mintzatu bide zitzairen. Preso jarraitu zuen, beraz, eta horregatik abiatu zuen Errege Gorteko auzitegiko fiskalak Auzaren kontrako auzia. Bestela, isuna ordainduta konponduko zen afera, gainerako atxilotuekin gertatu zen bezala. Hori horrela, dokumentazioak koplak kantatzen aritu zirela azaltzen du, eta bestelako jazoeren berri ere ematen du, Auzaren oldartzea bereziki, baina koplek diotenari buruzko xehetasunetan sartu gabe.

Borboreneko Auzak 21 urte zituen azaroaren 4an, galdeketa egin zitzaionean. Bere burua zuritu nahiz, harginaren apendiz, Juan Jose, jo zuen Etxeberriko Juana Maria Aldatzen kontrako bertsoen egiletzat, beste lekuko zenbaitek bezala. Harekin batera kantatu omen zituen Auzak. Edonola ere, nekez zatekeen apendiz bertsoen paratzailea, hura bera baitzen bertsoen protagonista edo sujeta. Gainera, Maria Antonia arrebari ere koplak atera zizkiotela salatu zuen Auzak, baina horien paratzailea nor izan zitekeen ez zuen orduan argitu. Dorreko mutila eta Goñi anaiak ibili omen ziren horiek kantatzen. Bertsoen hizkerak, oharretan bertan azaletik azalduko dugunez, baduke Basaburukotik, baina erdialderagoko eta iparralderagoko formen eragina ere nabarmena da.

Juan Alemanek berriki argitaratu bezala (Izenik gabe 2023: 26), harginaren apendiz horri Juan Jose Urritza Lazkano zitzaion izena. Berueten sortua eta Aldatzen hazia, Beramendirengana jo zuen hargingoa ikastera. Han zela, Etxeberriko Juana Maria haurdun utzi zuen lehenik, eta handik urte batzuetara, 1835eko apirilaren 11n hain zuzen, neskato bat izan zuen Mugiroko Fermina Iriarte Zubietarekin, ezkontzatik kanpo hura ere. Azkenerako, 1836ko abuztuaren 25ean, Udabera itzulita, Etxeberriko Juana Maria bera hartu zuen emazte.

Auza azaroaren 7an libre gelditu zen, aidak fidantza pagatuta, baina 1831ko azaroaren 31n ailegatu zen sententzia: 40 libera eta auzibidearen gastuak ordaindu behar izan zituen.



2. irudia. Udabeko Etxeberria. 2023-04-21. Arg.: R. Urrizola

3.2. Dokumentua

Nafarroako Errege Artxibo Nagusiko Errege Epaitegietako 308249 zenbakia duen auzibidean daude koplak, zortziko txikian moldatuak. Paper-sortaren hasieran daude, eta ez dute foliaziorik (ik. irudiak eranskinetan, 7.1 atalean). Dokumentuan berean esaten denez, berariaz atera zituzten bertsoak lekukoen deklarazio ofizialetatik eta aparteko pleguan jarri, lizunegiak zirelakoan. Arrazoi hori bera erabili zuten lekuko askok ere, ikasi ez zituztela erakusteko.

Aurreratu dugunez, bi bertso sorta daude auzibidean. Bat Etxeberriko Juana Maria Aldatzen kontrakoa da, eta Borboreneko Maria Antonia Auza du jomuga besteak. Errege Gorteko auzitegiak hala aginduta, Beran sortutako baina lhabengo Jauregira ezkonduetako eta hango notariotzaren ardura zuen Faustino Etxenikeri koplak biltzeko eskatu zion Basaburuko alkateak, 1831ko

azaroaren 4an³. Agindua betez, lau lekukoren aho-ezpainetatik bildu zituen, Beramendin galdeketa eginda:

- 1. lekukoa: Joakina Beramendi, 15 urteko udabearra.
- 2. lekukoa: Josefa Goñi, 14 urteko udabearra.
- 3. lekukoa: Maria Antonia Auza, Udabeko Borboreneko 24 urteko alaba, Martin Jose Auza presoaren arreba.
- 4. lekukoa: Jose Benito Goñi, 20 urteko udabearra.

3. lekukoari Juana Maria Aldatzen kontrako hamabost bertso bildu zitzaizkion. 1. lekukoak zazpi eman zituen: sei 3. lekukoak ere badakartzanak –aldaeak aldaera– eta berri bat. 2. lekukoak, aldiz, bertso bakarra eman zuen: 3. lekukoaren 3. bertsoaren aldaera da.

Maria Antonia Auzaren kontrako bertsoen kasuan, 4. lekukoak hamabi kopia kantatu zituen. Horietatik sei 1. lekukoak ere eman zituen.

Bertsoak Errege Gortean, hots, epaitegian uler zitezten, 3. eta 4. lekukoek kantatutako sorten itzulpena ere gaineratu zitzaion dokumentuari (ik. § 7.1.2). Faustino Etxenike eskribaua bera izan zen itzulpenaren egilea. Ikusiko denez, itzulpena euskarazko egiturari lotu zitzaion, eta ez dator beti gaztelaniaren arauekin bat. Hori gutxi balitz bezala, dagokionean azalduko dugunez, Etxenikek ez zuen beti bertsoen edukia behar bezala ulertu, edo ez zuen behar bezala itzuli nahi izan.

3.3. Edizioa

Lekuko bakoitzak emandako bertsoa zutabe banatan eman dugu. Etxenikeren erdal itzulpena dagokion aldaeraren ondo-ondoan heldu da. 2. lekukoak bertso bakarra eman zuenez, 12. oin-oharrean ematea erabaki dugu, taula estuagoa izan dadin.

³ Biharamunean, eskuz esku zebiltzan koplak kopiatuak erretzeko agindua ere eman zuen alkateak.

3.3.1. Juana Maria Aldatzen kontrako bertso sorta

1. lekukoa	3. lekukoa	ITZULPENEA
1	1	1
Bersoaren paracen nic bear dut asi. Echeberrian dauca andregaya irausi. Motivoac emanic, nic orain icasi. aprendizac nai luque errian nagusi.	Bersoaren ⁴ paracen ⁵ nic bear dut asi. Aprendiza ⁶ ori degu ⁷ errian nagusi. Motivoac emanic, orain tut ⁸ icasi. Echeberrian dauca andregaya irausi ⁹ .	Necesito principiar a poner bersos. En el pueblo el aprendiz tenemos el amo. Por los motibos q[ue] tengo, ahora los he aprendido. En la casa de Echeberría la tiene a la novia caliente ¹⁰ .
	2 ¹¹	2
	Bersoaren paracen nic bear dut asi; dembora asco ez dela cer degun ecusi ¹² . Nesca batec nai luque errian nagusi, bañon orañic ez dauca graduric asqui.	Yo tengo que principiar a poner unos bersos de lo que he bisto no hace mucho tiempo. Una moza quisiera en el pueblo ser dueña, pero aún no tiene bastante grado.
	3 ¹³	3
	Epaitondoa ¹⁴ naicela zuc emen ¹⁵ diozu. Muturraren erdit[ic] ¹⁶ guezurra diozu. Agozabal aundi bat zara zu; oraiñ berso berriac argatic dituzu.	Como el ondón o raíz de un árbol que soi, vmd. dicen ha dicho. Por medio de los morros, miente vmd. Una bocaraza (o embustera) es vmd.; ahora tiene vmd. por eso nuevos bersos.

⁴ Itzultzaileak pluralizat du, eta baliteke hala izatea. Ibar hauetan *bertsoan* bezalako forma bat singularra zein plurala izan daiteke (Apalauza 2012: 297), eta *bertsoaren* plurala hiperzuzenketaz sortua izan daiteke, metrikak ere lagunduta.

⁵ Bertso sorta honetan, behin baino gehiagotan ageri da objektua genitiboan. Halakoak gaur egun Ekialdeko eta Iparraldeko mintzoetan erabiltzen badira ere, inoiz zabalduago egon direla badakigu. Zer esanik ez, halako formula ihartuetan. Urrunera gabe, Ultzamako eta Anueko XIX eta XX. mende hasmentako dotrinetan ere ageri dira halakoak (Ibarra 2003: 351-352).

⁶ Ikusten denez, harginaren dizipulua ez da Aldatzen kontrako bertsoen egilea, argi eta garbi.

⁷ **Edun* saileko adizkietan, -e- eta -u- dutenen arteko txandaketa dago testuan zehar. Cf. bertso honetan berean, ~ *degu*.

⁸ Hots, kantariak bertsoak ikasi ditu, horretarako zergatiak baititu. Bertso hau hobeki ulertzen da lehen eta hirugarren bertsoak elkarrekin irakurrita, eta bigarrena eta laugarrena gero.

⁹ Zentzu hertsian, zerrien beroaldia da irausia. Hemen emakume batez ari dira, ordea.

¹⁰ Bertso-lerro honen ondotik, ezabaturik, honakoa: [...]. Azken hitza irakurgaitza zaigu.

¹¹ Lehen bi lerroak formulaikoak dira. Belateko lapurren bertsoetan (Riezu 1994: 672) ere antzekoak ageri dira: «Gauza bat deklaraten / Bear det orain asi; / Denbora asko eztuela; / Zer degun ikusi».

¹² Jatorrizkoan *ecusi* dagoela dirudi. Artolak ere (2001: 498, 501) Olaitzen aurkitutako bertsoetan bitan dakar *ecusi*, eta aldaera ez da ezezaguna inguruan (Apalauza 2012: 253).

¹³ 2. lekukoak ere bertso honen aldaera eman zuen: «Epeitondoa naicela zuc emen diozu. / Musturraren erditic guezurra diozu. / Abazabal bat izandu zara zu; / orain berso berriac argatic dituzu». *Epeitondoa* iluna zaigu; izan ere, «epestondoa» ere irakur daiteke. Autoreak i eta s maiz antzeko irudikatzen ditu, lehenak gainean puntua duela kenduta. Hemen, beraz, puntua ahantzi duela pentsa daiteke. 3. lekukoaren bertsoak argi eta garbi *epaitondoa* esaten baitu. *Mustur* aldaera txistukariduna, *pace* OEH, Mendebaldetik landara, ezaguna da Nafarroako erdialdean, gaztelaniaz bederen.

¹⁴ Cf. OEH *epaitondo* 'tocón de madera' (< *ebaki* + *ondo*), arbola ebaki ondoren gelditzen dena. Metaforaren zergatia ulertzea, ordea, ez da erraza. Itzultzaileak ere hitza behar bezala ulertu eta itzuli ote zuen ezin jakin daiteke. Gogoan izan, bestalde, 2. lekukoak *epeitondoa* edo are *epestondoa* eman zuela eta ez dela, baitezpada, hitz berbera. Juan Alemanek gaztigatu digunez, 'temazu' adiera har dezake hemen.

¹⁵ Hots, 'omen'.

¹⁶ Jatorrizkoan *erdit*, oker. Metrikak ere silaba bat falta dela iradokitzen du.

1. lekukoa	3. lekukoa	ITZULPENA
6	4	4
Orra berso berriec, propiac ¹⁷ , alere: dama gazte galay bi gure ¹⁸ errian badire. Batzarrera joanic bieci egondu dire; orien secretoac oraiñ aguertu dire.	Orra berso berriac, politac, alare: dama galay gazte bi Udaven badire. Batzarrera joanic biac egon dire; orien secretoac oraiñ aguertu dire.	Hai berso nuevo, bonito, por cierto. Dos damas galanes jóvenes hai en Udabe. Hidas las dos en el bazarre han estado; Ahora han parecido sus secretos.
2	5	5
Echealdeco alaba da, Jaungoicoac eguiñic. Dama orrec bide dauca dotea bilduric, bai eta amac cuchatelan sarturic. Echealde aundi bat bide dauca billaturic.	Echetaco alaba ¹⁹ da, Jaungoicoac eguiñic. Dama orrec bide dauca dotea bilduric; amac iduquico du cuchatelan ²⁰ sarturic, eche alde aundiren bat bai eta billaturic ²¹ .	Hija de casa vecinal es, porque Dios le ha hecho. Esa dama tendrá el dote recogido. Su madre lo tendrá dentro de la arca, porque tiene proporcionada alguna casa grande.
3	6	6
	Jaunac ²² , erabilli dute ²³ aleguiñic asqui: aprendizai zuten preso sarreraci. Mutill orrec izan du adisquide lazqui; libre ibillico da oriengatic, nasqui.	Señores, han tenido bastante quehacer: al aprendiz quisieron que lo ²⁴ entrasen preso, pero este mozo ha tenido muchos amigos, y me parece que por ellos andará libre.
5	7	7
Urrico illaren bersoaren paracen. Orien pasamoduac orain ditut aditcen. Ondo esplicaceco naute encargacen. Dama gaztea nor den ez dut ezagutzen.	Urriaco ²⁵ illean, bersoaren paracen. Orien pasamoduec orain tut aditzen. Ondo esplicatzeco naute encargatzen ²⁶ . Dama gazte ori nor den ez dut ezagutzen ²⁷ .	En el mes de septiembre, poniendo bersos. El modo de vivir de ellas ahora estoi oyendo. Se explique bien me están encargando. Esa dama joven quién es no la conozco.
	8	8
	Bein batez joan nitzen beren atarira: –“Bacarric nago eta atoz, ea, goitira”. Onela errespuesta eman nion ere: –“Aurrerat ²⁸ yoan behar dut; prisa dut nic ere”.	Una vez marché a su puerta: –“Estoi sola y venga vmd. arriba”. Y yo la di por respuesta: – “Tengo q[ue] ir adelante, y también tengo prisa”.

¹⁷ OEHren arabera, *propi* ez da lpar euskal herritik kanpo erraz aurki daitekeen aldaera. Haatik, ezaguna da Imotzen eta inguruetan (gaztigua: Juan Aleman).

¹⁸ Hitz hau ondoren gehitu du esku berak, gaineko lerroartean.

¹⁹ Hots, 'etxejabea', eta ez maizterra.

²⁰ Hots, 'kutxatila'. Dotea, maiz ohe-jantziak eta halakoak baitziren, kutxan gordetzen zen.

²¹ Hots, alaba etxe aberatsen batera ezkontzeko asmoa du amak.

²² Jaunak, segur aski, errejidoreak dira; hau da, Auza eta beste mutilak, aprendizai barne, preso sarrarazi zituztenak. Gogoan izan, Auza kenduta, isuna pagatu ondoren, libre gelditu zirela denak.

²³ Berorika ari zaie Jaunei.

²⁴ Hitz hau ondoren gehitu du esku berak, gaineko lerroartean.

²⁵ Hots, 'iraileko'.

²⁶ *Enkargatu* aditzak Nor-Nork saileko adizkiak hartzea ez da ohikoa Udabe aldeko mintzoan. Haatik, bertsolarien moldeetan maiz ageri da formula hori XIX. mendetik bederen, eta erdialdeko mintzoetan (cf. OEH s. v. *enkargatu*).

²⁷ Horra beste argudio bat bertsoen egilea aprendizai ez, baina beste norbait dela erakusten duena.

²⁸ Ez dugu adlatibo forma hau hitz honekin espero Basaburuan (Apalauza 2012: 323). Notario beratarraren ekarpena ote?

1. lekukoa	3. lekukoa	ITZULPENA
3	9	9
Jauna, dama gazte orrec nora bear ote du? Echealde on batean sartu bearco du. Aitac ere dotea prest iduquico du; arreo emanic, amac bialico du.	Jaunac, dama gazte orrec nora ²⁹ bear ote du? Echealde on batean sartu bearco du. Aitac ere dotea prest iduquico du; arreo emanic, amac bialico du.	Señores, esa dama joven ¿a dónde tendrá que ir? En alguna casa buena tendrá que entrar. Su padre también el dote tendrá dispuesto y la embiará su madre con el arreo o ropa de cama.
	10	10
	Ama bi alabarequin aitare zurracen Udaveco Echeberrian dirade aritzen. Iñorc cer esan ere, ez dira alquetzen emaguiñaren esque ³⁰ mandatua bialcen.	Madre con dos hijas dando una zurra al padre, en la casa de Echeberría de Udabe suelen ocuparsen. Aún por lo que ablan las gentes, no se abergüenzan a embiar por la ama con el recado q[ue] biniese.
	11	11
	Ciztor eta solomu, urdai-magrarequin berendatu emen dute biecarrequin. Orien secretoac ez tugu ³¹ gaizqui yaquin; orain, fia zaitetzte cembait personarequin.	Longaniza, lomo y magras dicen ³² han merendado los dos juntos. No hemos sabido mal sus secretos; y ahora fiaros con algunas personas.
4	12	12
Apezari eguin diote oyuric asqui. Sobrasse biagez dute enfadazi. Aprendiza nai zuten erritic ateraci; diru faltan guelditu bide ciren, nosqui.	Apezari eguin diote oyurican asqui. Sobrasse ³³ viajez diote enfadaci. Aprendiza nai zuten erritic ateraci; diru faltan, guelditu bide zaye, nosqui.	Al cura le han hecho bastantes gritos y por demaseados beages le han hecho enfadar. Al aprendiz querían se le hiciese salir del pueblo y, al parecer, por falta de dinero, se les ha quedado.

²⁹ Aditz bilakatutako halako adlatiboak ohikoak (izan) dira hizkera guztietan, eta bereziki emankorrek dira *behar izan* eta *nahi izan* perifrasiakin (Cf. Mujika 2008).

³⁰ Haurdun zen neska.

³¹ Hitz honen hasierako karakterea ez da ongi irakurtzen, errataren bat duelako. Guk **t** zuzendu dugu, objektu plurala duen adizkia behar delako, eta testuan berean, 7. bertsoan, *tut* forma laburtua ageri delako.

³² Hitz hau aurreko lerroaren bukaeran idatzi zen lehenik, eta ezabatu gero, hemen idazteko.

³³ Hots, 'soberaxe'.

1. lekukoa	3. lekukoa	ITZULPENA
	13	13
	Aprendiza utci ta Dorrecoa artu duzu ³⁴ . Orain berso berriac argatic dituzu. Andregay eder ura urac edaten ³⁵ duzu; len baño len visita eman bearco diozu.	Dejando al aprendiz, ha tomado al de la casa de Dorrea. Ahora los bersos nuevos por eso tiene vmd. Ermosa nobia está vmd. tomando aguas ³⁶ , pero antes con antes tendrá vmd. q[ue] visitarlo.
	14	14
	Gazteric asi ciñen mutillen atzean. Guciec sarcen dire zure biotzean! Bost aldiz esan diozu: “atoz arratsean, gustora pasaco degu gaba goatzean”.	Joben principiô vmd. detrás de los mozos. ¡Todos entran en el corazón de vmd.! Más de cinco bezes ha dicho vmd.; “benga vmd. por la noche, a gusto pasaremos la noche en la cama”.
	15	15
	Amabost berso dire orain paperean ³⁷ . Esplicatu bear ³⁸ ditut, beta dudanean. Causa franco badabill yoan de[n] ³⁹ aspaldian; dama gazte batentzat daude Echeberrian.	Quince bersos ahora son en el papel, y los tengo de explicar, cuando tenga tiempo. Bastantes causas hai hace mucho tiempo, para una dama joven q[ue] está en la casa de Echeberría.
7		
Orra zazpigarrena zorcigarrentaco: Eguzquia baño naigo du majoa beretaco. Guciec nai lituque bere menderaco. Presumicen duenic eztago arendaco.		

³⁴ Dorrekoa nor ote zen ez dakigu. Edonola ere, etxe hartan sortu zen 1819an Joakin Mariano Erbiti, bost anaietan gazteena, zeinaren dotrina ibili baitzuen Bonaparte printzeak, euskarazko datuen bila zebilela (Lekaroz 2014). Anaia-arrebak gazterik gelditu baitziren umezurtz eta batzuek etxea utzi behar izan zuten, ezin jakin hemen aipatzen dena Erbitiren anaia bat ote zen, etxeko mutila, ala beste inor.

³⁵ Haurdun zeuden emakumeek mineraletan aberatsak ziren urak hartzen ohi zituzten. Baliteke, haurdunaldia estali nahiz edo, neska urak edatera herritik kanpo joan izana.

³⁶ Itzultzaileak bertso hau gaizki ulertu bide du; «ura urac» sekuentziako lehen hitza ez du kontuan hartu eta, ondorioz, itzulpenean, andregaiari zuzentzen zaio bertsolaria; ez, ordea, euskarazko testuan.

³⁷ Lerro honetan, **r** hizkia berezia da. Ematen du izkiriatzailea **p** idazten hasi zela, eta zuzendu gero.

³⁸ Jatorrizkoan *berar*.

³⁹ Jatorrizkoan *yoande*.

3.3.2. Maria Antonia Auzaren kontrako bertso sorta

2. lekukoa	4. lekukoa	ITZULPENA
1	1	1
Memorian daucadana bear nuque pasa. Dama escogitua, egon zaite lasa; ateraco dizue maquiña bat causa. M[ari]a Ant[onia] du icena, lombria du Auza.	Memorian dudana bear nuque pasa. Dama escogitua ⁴⁰ , egon zaite lasa ⁴¹ ; opatuco ⁴² dizue magina causa. M[ari]a Antonia du icena, lombria du Auza.	Lo que tengo en la memoria debía pasar. Dama escogida, esté vmd. ancha; encontrarán a vmd. muchas causas. M[aría] Antonia tiene nombre, apellido Auza.
2	2	2
Dama, emanen dizut garvi aditcera nola etorri ciñen Salvetic ichera. Bidean artu cenuen zuc cere placera; ascoc esaten due ⁴³ "doncella etzara".	Dama, emanen dizut garvi aditzera nola etorri ciñen Salvetic ⁴⁴ ichera. Orduan artu cenuen zuc cere placera; ascoc esaten du doncella etzarella.	Dama, la daré a vmd. claro a entender cómo volvió vmd. de la Salbe a casa. Entonces tomó vmd. a su placer; muchos dicen q[u]e no es vmd. doncella.
	3	3
	Gauza batez nago ni arritua: nola galcen duen besteren creditua. Berac izanican nayco delitua, adisquideren bat dago servitua.	Por una cosa estoy yo aturrido: porq[u]e pierden el crédito de otros (o quitan el crédito a otras). Teniendo ella bastante delito, algún amigo está bien serbido.
	4	4
	Errutira ⁴⁵ etorri da gure mandatua. Deseoz daducagu gogoan artua. Ez da iduquico ⁴⁶ gauza ⁴⁷ ori aztua; elizatic ichera eguin pecatua.	De lejos ha benido nuestro recado (o se ha hecho público), y con deseos lo tenemos en la memoria. No se tendrá en olvido ese recado: cometieron pecado de la yglesia a casa.

⁴⁰ Hots, 'hautatua', 'galanta'.

⁴¹ Hots, 'lasai'. OEhk dioenez, aldaera dokumentatua dago Nafarroan, 'tranquilo' eta 'ancho, holgado, amplio; flojo, suelto' adieretan.

⁴² Hots, 'topatu'. Aldaera zabaldua dago Nafarroan, OEhk dioenez.

⁴³ Basaburuan *-te* pluralgilea bide dago, baina Larrauna orduko *-i* ageri da (< -e). Baliteke Udaben biak ezagun izatea (Apalauza 2012: 355).

⁴⁴ Salbea Ama Birjinaren omenezko errezua baita, eta Udabeko festak iraileko Ama Birjinaren patroitzapekoak baitira, dudarik ez dago gertakariak herriko festetan izan zirela. Juana Maria Aldatzen kontrako bertsoetan aipatzen den *urri* hori, beraz, iraila da.

⁴⁵ *Da* idatzi zen, eta gero ezabatu. Segur aski, 6. koplak kopiatzen hasi zen eskribaua, oker. Hitz honen aldaera hau bera, bestalde, dokumentaturik dugu eremuan (Apalauza 2012: 253).

⁴⁶ Hitz honetan, *u*-ren bigarren trazua bertikalari ondoko *i*-ren puntua jarri zaio, oker.

⁴⁷ Jatorrizkoan *gazeza*, segur aski. Badirudi *u*-ren lehen trazuan *z* idatzi zuela oker, apika ondoko *z*-k eraginda. Ohar bedi lerro berean ere beste errata bat dagoela. Ikus aurreko oharra.

2. lekukoa	4. lekukoa	ITZULPENA
	5	5
	Gauza bat jaquindu dut nic nere errian: dama bat opatu dutela beren iturrian, minzacen ciradela ⁴⁸ claro eta eguian, piper-opillaren esque landaren erdian.	He sabido una cosa yo en el pueblo: que a una dama le han encontrado en su fuente, que ablaba claro y con verdad, en medio de la heredad por el piper-opil (no se sabe el sentido q[u]e quiere darle, pues piper-opil es como una rosquilla, aunque en figura de bizcocho) ⁴⁹
4	6	6
“Dama orren ibillera asco zait gustatu”. Piper-opilla diote mutillari escatu. Labanas ⁵⁰ evaqui ta bereala puscatu; naiago zuen dama orrec orrela jostatu.	“Dama orren ibillera asco zait gustatu” ⁵¹ . Piper-opilla cioten mutillari ⁵² escatu. Labanaz evaqui ta bereala puscatu; naiago cian dama arrec orrela jostatu.	El modo de andar de esa dama mucho me ha gustado; piper-opil pidió al mozo. Cortando lo mismo q[u]e con la nabaja hizo pedazos; quería esa dama así dibertirse.
3	7	7
Orra berso berriac bear den moduan. Gauza onic ez dago orien buruan; lecuá galduric daudela ceruan, naiago dute egon betico ynfernuan.	Orra berso berriac, bear den moduan. Gauza onic eztago orien buruan; lecuá galdurican daudela ceruan, naiago dute egon betico ynfernuan ⁵³ .	Aquí bersos nuevos como deben. Cosa buena no hai en esas cabezas; perdiendo el puesto en el cielo, quieren estar para siempre en el ynfierno.

⁴⁸ Adizki hau plurala da, baina itzultzaileak singularrean itzuli du, dama subjektutzat hartuta. Gure ustez, subjektua ez da dama. Beste batzuek, mutilek segur aski, dama topatu dute iturrian, piperropil eske.

⁴⁹ Itzultzaileak ez du pasartearen zentzua harrapatu. Nafarroako erdialde eta mendialdean bederen, ohitura zabaldua zen, festa eta dantza egunetan, neskek mutil-taldeei edo gustuko zuten mutilari plazan piperropilak ematea. Leku batzuetan, mutilek ere gustuko neskei banatzen zizkieten. Hemen, baina, badirudi neskak zuzenean eskatu dizkiela piperropilak mutilei (cf. 52. oin-oharra).

⁵⁰ Apalauzak (2012: 312) -s instrumentala bildu du Basaburuan.

⁵¹ Gure ustez, hau zioten herriko mutikoei, plazan emakumeei gorte egiten zebiltzala.

⁵² Bertso honen zentzua ez da gardena. Ematen du, kasu honetan, mutil batek hura atsegin zuela esanda, neskak berak eskatu eta zatitu zuela piperropila, mutilak berak eskaini aurretik (cf. 49. oin-oharra). Beste aukera bat da *mutillari* pluraltzat hartzea, eta *zioten* ‘zien’ dela pentsatzea (cf. Yrizar 1992). Edonola ere, neska ekimen handikoa izatea salatzen dute koplek.

⁵³ Esaldi hau galderatzat ere jo daiteke.

2. lekukoa	4. lekukoa	ITZULPENA
6	8	8
Cer dela uste dute honrra galcea ⁵⁴ ? betico bere anima ynfernuan sarcea. Obe da bicitza berri bat arcea; len gaizqui-eguiñez orain aguercea.	Cer dela uste dute honrra galcia ⁵⁵ ? Betico anima ynfernuan sarcea. Obe du bicitza berri bat arcea; berac gaizqui-eguiñez ⁵⁶ orain aguercea.	¿Qué les parece que es perder la onrra sino para siempre la alma entrar en [e]l ynfierno? Más les bale tomar un nuebo modo de vivir, confesando los males de antes.
	9	9
	Amargarren ⁵⁷ bersoa aditu bear duzu ⁵⁸ . Anima bat besteric ceregan ez dezu. Entendi dezaquezu lijero eta estu ⁵⁹ ; besterenac ere galdu-eta nai dezu? ⁶⁰ .	El décimo berso tiene vmd. q[u]e oír. Más q[u]e una alma sobre sí, no tiene vmd. Puede vmd. entender ligero y pronto. ¿Las de otros también quiere vmd. perderlas?
	10	10
	Despedidac ematen orain bear det asi. Bacocha bere guisan nai guenduque vici. Cortesía aundircan ez dezu icasi; mutillen ondoretic beguira ez gueigo asi ⁶¹ .	A despedirla ahora tengo q[u]e principiar. Cada uno a su idea quisiera vivir. Mucha cortesía no a aprendido vmd.; no principie vmd. más a mirar a los mozos.
	11	11
	Aditu bear duzu, M[ari]a Ant[oni]a: prenda escogitua ezin da obia. Echera bidean galdu honorea ⁶² , cergatic eman dion besteri bere podorea ⁶³ .	Oiga vmd., María Antonia: prenda escogida no es posible mejor. En el camino para casa perdió el honor, porque dio a otro su poder.

⁵⁴ Hitz honetan izkiriataileak duda egin du azken-aurreko karakterean **e** edo **i** idatzi. Lehenaren alde egin dugu, besteekiko errima zaintzeko.

⁵⁵ Berriz ere, errimak salatzen du gainerako puntuak ere *-ia* ahoskatzen zirela, *-ea* idatzi bada ere.

⁵⁶ Erdarazko itzulpenari begira, ematen du *gaizki-egin* izentzat hartu behar dela hemen. Cf. OEH (s. v. *gaizki egin* 'Ofensa, acción mala, falta, pecado').

⁵⁷ Haatik, bederatzigarrena da. Azken bertsoan denera hamabi zirela esaten baitzaigu eta hemen ere hamabi baitira, ez dugu uste bertsorik falta den. Segur aski, bertso hau ez dago jatorrian zegokion hurrenkeran.

⁵⁸ Ohar bedi bertso honen *duzu* / *dezu* txandaketa. Errimak, ziur aski, *dezuren* alde egiten du, baina *duzu* da hango hizkeran espero duguna. Hemen *dezu* formaren prestigioa egon daiteke atzean, bertsoetarako erdialdeko formak hobetsiz, batez ere errimak hori errazten badu.

⁵⁹ Hitz hau irakurtzeko zailtasuna izan dugu. Agian «usu» ere irakur daiteke.

⁶⁰ Hemen, beste behin, lehen eta hirugarren lerroak batera doaz, baita bigarrena eta laugarrena ere.

⁶¹ Hitz hau irakurgaitza da, eta itzulpena oinarri hartuta eman dugu horrela. Bestalde, erdal itzulpena ikusita, jatorrizkoan heldu den *beguira gueigo asi* horretan ez falta dela deritzogu, eta hala zuzendu dugu.

⁶² Erriman dagoen *-ea* / *-ia* txandaketak salatzen du, beste behin, *-ia* ahoskatzen zutela, baina ez idatzi. *Antonia* hitzarekin errima egon dadin, *honoría* eta *podoría* behar genuke, *obia* dugun bezala.

⁶³ Hots, 'baimena'. Cf. OEH (s. v. *podore*).

2. lekukoa	4. lekukoa	ITZULPENA
5	12	12
Alperric da astia vuelta eta jira; amabi verso berri paperean dira. Norbaiteri eman diozu paraceco bide. Tolosatic barrena etorriac dire.	Alperric da astia vuelta eta jira; amabi berso berri paperean ⁶⁴ dira. Norbaitec eman dizu paratzeco bide ⁶⁵ . Tolosatic ⁶⁶ barrena etorriac dire ⁶⁷ .	En valde es que principie dando buelta o gira; doze bersos nuevos están en el papel. Alguno le ha dado vmd. para ponerlos motibo. Son llegados por Tolosa aquí.

4. Doneztebe (1826)

4.1. Testuingurua

1826ko otsailaren 3an Errege Gorteko auzitegiak Fermin Altzu Beristainen kontrako salaketa jaso zuen. Pedro Jose Donamariako eta Gazteluko maisu erretiratuaren eta Maria Teresaren semea zen; Doneztebeko eskolako maisua eta herriko semea. Dirudenez, Frantziska Etxenike gaztea haurdun utzi zuen, ezkondu gabe. Salaketak hala dio:

Francisca Echenique, soltera, natural de dicha villa [Doneztebekoa], se hallaba embarazada de Alchu, por cuyo motivo salió de la casa de Miguel de Goyeneche, en donde servía en calidad de criada. A esta voz que públicamente corría por el pueblo se agregaron otras diferentes de que no era esta la primera prueba de incontinencia contra el tal maestro, pues que en esta ciudad [Iruñea], en el lugar de Donamaria y aún en Santesteban había seducido a otras. El escándalo consiguiente a estas rémoras fue sucesivamente en aumento, pues al mal ejemplo de un funcionario destinado precisamente a educar la juventud, se agrega la inteligencia general que había abusado de aquella infeliz [Frantziska Etxenike] en la época que como alumna suya asistía a la escuela, siendo esta la que servía de albergue para sus excesos⁶⁸.

1826ko otsailaren 5ean, epaileak bidalitako eskribaua Donezteben zen, testigantza bila. Artean, Altxuk, salaketaren berri izanda, Markalaina ihes egin zuen, han baitzuen anaia, maisua hura ere.

Eskribauak Juan Bautista Etxenike galdekatu zuen; Frantziskaren aita. Bazekien alaba haurdun zegoela, eta Altzu beste ume baten aita ere bazela, Maria Martina Andiaarenarekin izandakoa, hain zuten. Gainera, Bitoriana Armasa delakoarekin ere gauza bera gertatu zela zioen. Gero jakin zen Armasarekikoa zurrumurrua baino ez zela.

⁶⁴ Honek erakusten du bertsolariak idatziz ondu zituela bertsoak. Horrek ez du kentzen, jakina, jendeak buruz ikasi eta ahoz zabaltzean, aldaerak sortzea. Horren erakusgarri da lekuko bakoitzak ez zituela koplak berdin-berdin gogoan, eta badirela aldeak lekukotik lekukora.

⁶⁵ Zentzuari eta erdal itzulpenari begira, lerro honetan egokiagoa dirudi bigarren lekukoak emandakoa.

⁶⁶ Ez dago garbi zergatik aipatzen den Tolosa. Baliteke formula ihartu bat izatea, bertsoen anonimotasunaren adierazgarri, ala, benetan, Tolosako edo Tolosatik Udaberako bidean den herriren bateko bertsolari baten lana izatea.

⁶⁷ Bertso honetan *dira* / *dire* txandaketa dugu. Lehenak *jira* hitzarekin egiten du errima, eta bigarrenak *biderekin*. Ez ote dugu, berriz ere, *jire* eta *dire* ahoskatu behar bertsoak errima bakarra izan dezan?

⁶⁸ Nafarroako Errege Artxibo Nagusia (NEAN), Procesos, 343566, 1r.

Frantziska Etxeniketik 21 urte zituen galdeketa egin zitzaionean, 1826ko otsailaren 5ean⁶⁹. Bederatzi egun geroago erditu zen Altxurekiko umeaz, baina berehala hil zen haurra. Frantziskak kontatu zuenez, irakurtzen eta idazten ikastera eskolara joaten hasi zen Altxurengana, herriko beste neska gazte batzuekin batera. Orduan hasi zitzaion maisua proposamen lizunak egiten. Hasieran ezetz esan zion, baina, azkenean, gogoz kontra, amore eman zuen. Ez zen horretan haurdun gelditu, baina bai hurrengoan, eskolan berriz bortxatu zuenean. Hirugarrenez ere bortxatu bide zuen, geroago. Etxeniketik, haurdun, Altxuri erantzukizuna har zezan eskatu zion, eta maisuak ezetz; lehenago haurdun utzia zuela Donamariako aroztegiko Bitoriana Armasa (labaiendarra sortzez), eta harekin hitzemana zela. Ondorioz, Etxeniketik Goienetxean neskame aritzeari utzi behar izan zion⁷⁰.

Lukas Karrion Doneztebeko apezari egindako galdeketa jakin zen Altxuk harengana jo zuela Frantziskarekin gertatutakoa estaltzeko, emakumea Iruñeko inkusara edo ospitalera bidaliz; berak ordainduko zituela gastuak. Ordurako eskandalua ezaguna baitzen, Frantziskaren aitak ez zuen halakorik onartu: umearen ardura har zezan eskatu zioten⁷¹. Apezak, gainera, Altxuk Maria Martina Andiarena ere haurdun utzita zuela kontatu zuen –hura ere ikasle zuela–, baita Iruñeko emakume bat ere, eta beste batzuk.

Hala, 25 urteko Maria Martina Andiarena ostatuko neskame donamariarrak eskribauari kontatu zionez, bi urte lehenago Altxuren ume batez erditu zen, lau urte lehenago hasi baitzen harekin harremanetan. Bistan denez, Altxuk ez zuen umearen ardurarik hartu⁷².

Bazterrak inarrosirik baitzeuden, bertsoak paratu zituzten Fermin Altxuren gorabeheren berri emanez. Bertsook, karrikan kantatzeaz gain, idatziz ere ibili omen ziren. Juan Angel Erkaztiren deklarazioa argigarria da zentzu horretan:

ahora como unos veinte días recibió una carta anónima, que no sabe de quién sea, en la que le remetían unas canciones criticándole que Alchu había tenido engañadas hasta seis mozas, las cuales ha dado a una persona para que las tuviese⁷³.

Altxuk 1826ko otsailaren 22an defendatu zuen bere burua. Ordurako preso zen Iruñeko gartzelan. 24 urte zituen orduan doneztebarrak⁷⁴. Maisuak zioenez, egia da 1825eko martxo aldera, eta abuztuan bi aldiz, Frantziskarekin harremanak izan zituela, baina neskak ez zuela inongo trabarik jarri. Are gehiago, Frantziskaren umea berea zela ere dudan paratu zuen, eta zin egin ez ziola behin ere ezkontzeko promesarik luzatu⁷⁵. Andiarenarekiko harremanak ere onartu zituen, eta umeak izan zituztela ere bai, baina ez zekiela ezkontzeko agindurik eman ote zion⁷⁶.

1826ko martxoaren 8an Fermin Altxuren aitak akordioa erdietsi zuen Frantziskaren eta Maria Martinaren gurasoekin, baina hil horren 30ean Errege Gorteak kausa-errematea plazaratu zuen⁷⁷.

⁶⁹ Juana Frantziska Markos Etxenike 1805eko apirilaren 24an jaio zen Donezteben. Aita Juan Bautista Gaztelukoa zuen, eta ama, Maria Frantziska Perotxena, Doneztebekoa (IEA, Bautizados Santesteban).

⁷⁰ NEAN, Procesos, 343566, 97r-97v.

⁷¹ NEAN, Procesos, 343566, 101r-101v.

⁷² NEAN, Procesos, 343566, 109r.

⁷³ NEAN, Procesos, 343566, 113v.

⁷⁴ Donezteben jaio zen 1801eko irailaren 2an. Aita, Pedro Jose, Gaztelukoa zuen; ama, Maria Teresa Beristain, Gipuzkoako Itziarkoa (IEA, Bautizados Santesteban).

⁷⁵ NEAN, Procesos, 343566, 28v.

⁷⁶ NEAN, Procesos, 343566, 29r.

⁷⁷ Kausa-errematea Errege Gorteko auzitegiaren lehen sententzia zen, inplikatuak galdekatu eta berehala ematen zena, defentsak lekukoak aurkeztu baino lehen. Kausa-erremateak aurrera egiteko, fiskalak eta akusatuak ontzat eman behar

Maisua sei urtez Zeutara soldado bidali, eta Donezteben maisu aritzeko baimena kendu zioten. Altxuk errematea onartu ez zuenez, epaiketak aurrera egin zuen. Hala, ekainean, Doneztebeko 60 bat biztanle pasatu ziren epaitegietatik, Altxuren alde deklaratzera.

Abuztuan sententzia eman zuen Errege Gorteak. Haatik, epaia kausa-errematea baino latzagoa izan zen, Zeutako zerbitzua zortzi urtetara igo baitzuen, maisu izateko baimena kendu, bai eta epaiketaren kostuak ordaintzeko agindu ere. Helegiteak aurkeztu bazituzten ere, sententzia bere horretan gelditu zen.

4.2. Dokumentua

Nafarroako Errege Artxibo Nagusiko Errege Epaitegietako 343566 auzibidean daude koplak, dokumentazioan bertan josirik dagoen liburuxka batean. Hamalau bertso dira, 72r-73v folioetan jasoak (ik. irudiak eranskinetan, 7.2 atalean). Datarik edo egilearen sinadurarik ez da ageri. Aitzitik, Fermin Altxuk berak, Geronimo Goñi, Martin Jose Etxenike, Martin Etxaideren mutila eta Kosme zurginaren semea zituen erruduntzat, horiek aritu baitziren koplak kantari Altxuren etxe aitzinean⁷⁸. Altxuri koplak jasotzen dituen dokumentua bera erakutsi zioten, eta letrakera Norberto Goienetxe errege-eskribauarena zela esan zuen⁷⁹. Bertsook Goienetxek berak erredaktatutako beste izkribu batekin erkatu ditugu⁸⁰ eta, koplek letrakera zainduagoa bada ere, eta zalantzak zalantza, Altxuk arrazoia zuelakoan gaude.

Maisuak berak salatu zuenez, Goienetxek herra zion arrazoi politikoak tarteko, eta hainbat lekukok eman zuten bien arteko tirabiren berri auzibidean. Goienetxe liberala zen eta Altxu, aldiz, Fernando VII.aren absolutismoaren aldekoa. Goienetxeri buruz jakin ahal izan dugunez⁸¹, Donezteben jaiotzen zen 1792ko abuztuaren 13an. Aita Frantzisko zubietarra zuen, eta ama M^a Josefa Manuela Irurtzun, doneztebarra. Aitaren aldetiko aiton-amonak zubietarrak eta berastegiarrak ziren, eta amaren aldetikoak, aldiz, Errozkoa bata, eta Doneztebekoa bestea. 1818 urtean Araitzen eta Betelun idazkari zebilen Goienetxe,⁸² baina 1824ko abenduan ideia libralek postua galtzera eramane zuten, eta 1825eko urrian Doneztebera joan zen osaba Miguel Goienetxeren etxera. Hain zuzen ere, etxe hartan zebilen Frantziska Etxenike neskame, Altxuk umea egin zionean. 1826an, auzibidea abiatu zenean, 32 urte zituen idazkariak, eta ezkongabea zen⁸³. 1829ko irailean Araitza itzuli zen Goienetxe, lehenago zuen postura, eta ordutik aurrera liberalen aldeko borrokan ageri zaigu, teniente koronel izateraino (García-Sanz 2014: 101).

Nabarmena da, edonola ere, bertsoek ez dutela Doneztebeko edo inguruko hizkera ageri. Mintzoa erdialdekoa da; Gipuzkoakoa, ziurrenik (cf. txistukarien neutralizazioa, *dan / zan*, hiatusaren kontrako *-uba* epentesia, *asco*, *-ana* menderagailua perpaus osagarrietan...). Azterketa sakonik egiteko asmorik gabe, ezaugarri zenbait *-ez denak-* Juan Inazio Iztueta (1767-1845) zaldibiarraren euskaran ere badirela ikusi dugu, baita Manuel Larramendi (1690-1766) andoaindarrarenean ere. Ikertzeko dago, beraz, Larramendiz geroztiko erdialdeko eredu linguistikoak (cf. Urgell 2018) bertsoetan zenbaiterainoko isla duen. Baliteke Goienetxek Araizko

zuten. Batek edo bestek errefusatuz gero, epaiketak aurrera egiten zuen, defentsak aurkeztutako lekukoak galdekatuz, eta galdeketa berriak eginez. Horrek, jakina, epaiketaren kostuak erruz handitzen zituen.

⁷⁸ NEAN, Procesos, 343566, 30v.

⁷⁹ NEAN, Procesos, 343566, 30v.

⁸⁰ NEAN, Not. Lecumberri, Prot. Goyeneche (Atallu, 1818-04-18).

⁸¹ IEA, Bautizados Santesteban.

⁸² NEAN, Inventario de los escribanos de Lekunberri 1813-1830. 22973/5.

⁸³ NEAN, Procesos, 343566, 85r.

aldian Gipuzkoatik heldu zen eredu jaso hori ezagutu izana, baina garbi esan behar da, batetik, mintzoa ez dela Araizkoa eta, bestetik, horrek ez duela baitezpada esan nahi bertsook Goienetxek berak egin zituenik.

Aurrekoan bezala, oraingoan ere bertsoak gaztelaniara itzuli ziren, eta itzulpena auzibidearen 26r-27v folioetan dago (§ 7.2.2). Manuel Indartek hartu zuen ardura hori, horretan iaioa baitzen, antza⁸⁴. Itzulpena Iruñean sinatua dago, 1826ko otsailaren 20an⁸⁵.

4.3. Edizioa

Ezkerreko zutabeen bertsoen euskarazko jatorrizkoa eman dugu, eta Indarten itzulpena, eskuinean.

1	ITZULPENA
Canta berri eder bat paratzen naiz asi, Bertizango vallean ⁸⁶ desaten icasi. Eguia esan gave ez nezaque utzi: ango gazteria chit gustora da vici.	Una canción nueva hermosa comienzo a poner, para q[u]e en el valle de Bertiz Arana puedan aprender. Sin decir la verdad no puedo dejar: la joventud de hallá vive muy gustosa.
2	
Santestebanen dute maisua D[on] Fermin. Escola paratua, ez du batere min. Guizon abilla dana badaquigu berdin; prodigio andiac omen ditu eguin.	En Santesteban tienen por maestro D[on] Fermín. Escuela puesta, no le duele. Que es hombre instruido sabemos, pues grandes prodigios ha hecho según.
3	
Escribatzen omen du asco eta garbi. Alacoac bear du enseñanza jarri. Guizona lan obetan ⁸⁷ ez diteque ari; errian omen dauzca lau dama ernari.	Dicen que escribe mucho y bien. Sujetos como aquél deben en la enseñanza poner. El hombre en esa labor no puede seguir; en el pueblo dicen q[u]e tiene cuatro damas preñadas.
4	
Maisu on izatea	El ser buen maestro

⁸⁴ Testuak «persona inteligente en la materia» dio.

⁸⁵ Manuel Indart legasarra zen. Errege Auzitegietak eskribau postua erosi zuen, baina 25 urte beteak behar ziren kargua hartu ahal izateko. Hala, 1829ko urriaren 10eko agiri batean adinaren eskakizuna barkatzeko eskatu zion erregeordeari, adin hori betetzeko hiru urte eta hamaika hilabete falta zituenean (NEAN, 085170). Hartara, 1826ko otsailean, bertsoak itzuli zituenean, 17 urte zituen.

⁸⁶ Guk dakigula, Doneztebe ez da sekula Bertizarana izan. Doneztebe Lerin delako ibarreko burua zen, zeinetatik Sunbilla eta Bertizarana XVII. mendean bereizi baitziren. 1845ean atera ziren, bestalde, Ituren, Zubieta, Elgorriaga, Gaztelu, Donamaria, Urrotz eta Oitz. Bertsoak egin zirenean, beraz, Doneztebeko ibarrekoak ziren oraindik (Fundación Caja Navarra s. d.).

⁸⁷ Erakusle hau erdialdeko euskararen lekukotasunetan kausitu dugu. Iztuetak ere hala darabil.

<p>ez da chit milagro; aprendiz urteac goiz cituen igaro. Aren contuac ongui⁸⁸ jaquiñean nago: Pamplonan izan ditu beste bi lenago.</p>	<p>no es de estrañar, pues los años de aprendizaje muy joven los pasó. De sus pasajes bien enterado estoy: en Pamp[lon]a ha tenido antes de ahora dos.</p>
5	
<p>Escu ariña du ta pluma es pizuba. Bere oficioan guziz jaquinzuba. Naiz dala mansoa ta orobat izua, damac escolatzeco ura cer maisua!</p>	<p>La mano muy airosa, la pluma de poco peso. En su oficio es muy instruido. Así mansas como esquibas, para sujetar a las damas jaqué! qué maestro!</p>
6	
<p>Escola jarri zuen verac ala naita, edozeñec es baitu artaraco gaita⁸⁹. Nafarroa guzian siñalea baita, ezcondu baño len da sei umeren aita.</p>	<p>Puso la escuela por q[u]e él mismo quiso; no todos tienen tanta disposición. En todo Navarra tiene la señal; antes de llegar a casar, es padre de seis criaturas</p>
7	
<p>Maizuari ezanic⁹⁰ amodio piña, escolara joaten citzayon Martiña. Aguirian daucate ango lan eguiña. Orduan gozo zana orain chit da miña.</p>	<p>Teniendo al maestro un amor fino, acudía a la escuela la Martina. Al pú[bli]co la tienen la labor que en ella hicieron. El gozo de entonces, ahora muy agrio.</p>
8	
<p>Mari Martin gaisoa, orra zure dicha. Maizu jaquinzunaquin cuidados zabilza. Maite izan bazindu guizon prestu guiza, etzizun ucatuco emandaco itza.</p>	<p>Maria Martina infeliz, hay tienes tu d[i]cha. Pues con maestros sabios anda con cuidado. Si te hubiera querido como hombre de bien, no te hubiera negado la palabra dada.</p>
9	
<p>Eguin zuen orduan zurequico lana. Laizter abiatu zan</p>	<p>Cuando verificó la labor con vmd., pronto dio principio</p>

⁸⁸ *Ongi* erdialdeko hizkeretan ere lekukotzen da, eredu literarioan. Iztuetak, esaterako, frankotan darabil bere bertsoetan.

⁸⁹ Hots, 'umorea' (cf. OEH s. v. *gaita*).

⁹⁰ OEHk *izan* aditzaren ezan aldaera Gernikan, Bortzirietan, Azpeitian eta Ainhoan lekukotzen dela dio.

beste batengana, baita logratu ere deseo cebana ⁹¹ : dama gazte bat ceña dan Vitoriana.	con otra, y tambien logrado su deseo de una dama joven, que es la Vitoriana.
10	
Ycuziric ain gazte, guri eta mardul, Vitoriana zuen artu bere lagun. Alaco paragean nai litzaque jardun; ura ere trizteac eciñ logratu du ⁹² .	Visto tan joven, hermosa y guapa, tomó a la Vitoriana por su compañera. En tal paraje le quisiera tratar, pero de aquella el triste no pudo lograr.
11	
Dama Vitoriana, beguiric ez buzti: maizuac maite zaitu, ez alere guchi. Zurequin ezconduric nai zuquean vici, baldin lenagocoac baliote utzi.	Dama Vitoriana, no mojar los ojos: el maestro la estraña a vmd., pero no poco. Con vmd. casado quiso vivir, si las anteriores le hubieran dejado.
12	
Eguin esqueroztanic ⁹³ orrembezte neque, errenta seguru bat guizonac nai luque. Trabajatzen omen du anitz ⁹⁴ eta merque: sabela omen dio Franciscari bete.	Despues de tanto trabajo. una renta segura el hombre merece. Dicen que trabaja mucho y barato: la tripa a Fran[cis]ca dicen que le ha llenado.
13	
Nafarroan ez dago alaco mutillic: numbaiten ere badu beste bat issillic. Gordea egon arren ateac ichiric, noizbait aguertuco da, ill edo viciric.	No hay en Navarra un mozo como aquél: en alguna parte tiene otra callando. Escondida que esté [..] puerta cerrada, alg[un]a vez parecerá, muerta o viva.
14	
Sei andre omen dauzca gaur bere carguan. Ea nor arkitzen dan alaco graduan!	Seis mugeres dicen que tiene hoy a su cargo. ¡Haber quién se halla

⁹¹ Adizki hau lztueta zaldibiararak, esaterako, badarabil. Ohar bedi, halere, bertso hauetan bertan *zuen* ere badela.

⁹² Azken lerro hau eta aurreko lerroko azken hitzeko **c** geroagoko idatzaldi batean gehitu dira, jatorrizkoa ezabatuz. Jatorrizkoan «ipiñi(?) du aurdun» irakur daiteke. Gogoan izan Bitorianaren kasuan, duda egin zela epaiketari haurdun egon zen ala ez, eta frankok emakumearen bertutea goraiatu zutela.

⁹³ Forma hau Larramendiren eta lztuetaren testuetan dokumentatzen da.

⁹⁴ Erdialdeko autore batzuek ere badarabilte forma hau, Larramendik edo Otxoa Arinek kasu. Beste behin, nasai ediren daiteke lztuetaren lanetan.

Iñorc ez du berdinzen España barruan: ojala banengoque ni arren larruan.	en tal grado! Nadie le iguala dentro de España: ojalá si estuviese yo dentro de su pelleta.
---	---

5. Ondorioak

Lan honetan, Udaben eta Donezteben XIX. mendean kantatu ziren bertso-sorta bana eman dugu ezagutzera. Ez dira gutxi mutilak errondan ibiltzearen ondorioz abiatutako auziak, eta hauek ere tankera hartakoak dira. Bertsoak inoren leihopean kantatzen aritzea iraina zen, eta auzi-iturri izan baitziren, Nafarroako Errege Artxibo Nagusiko auzibide banatan gorde dira. Zorritzarrez, ezohikoa da halakoetan jatorrizkoak ere aurkitzea, maiz suntsitu egiten baitziren; hortaz, salbuespena dira honako biak.

Bi kasuetan, bestalde, itzulpenak ere eginarazi zituzten, epaitegian edukiak behar bezala ulertzeko. Gure ustez, Doneztebeko bertsoen itzultzailea zorrotzago aritu zen zeregin horretan Udabekoa baino. Egia da, gainera, azken horiek ilunagoak direla hainbat pasartetan.

Hizkuntza-azterketa sistematikorik egin ez badugu ere, bistakoa da testuek ez dutela herriko hizkera zorrotz islatzen; Doneztebekoan bereziki nabarmena da hori. Horrek, ezbairik gabe, bertsozaintzara ere Lehen Euskara Modernoko (Urgell 2018) prestigiozko aldaerak ailegatu zirela iradokitzen du, eta are bertsozaintzaileak kanpokoak izan zitezkeela ere. Ezagun da bertsolari profesionalek bertsoak idatziz paratu, eta paperean igortzen zituztela maiz (cf. Txirritaren kasua, esaterako; Zavala 1971). Gero zabalduko ziren ahoz edo idatziz, Udaben gertatu bezala. Deigarria da, bide batez, lekukoak, bertsoen egileez ari direla, mintzoaren ezaugarriez deus ez aipatzea, Doneztebeko kasuan batik bat. Gogoan izan bi kasuetan herriko –edo, bederen, inguruko– norbait dutela egiletzat, hizkerak oso bestelakoak izanik ere.

6. Erreferentziak


- APALAUZA, A. (2012). *Nafarroako ipar-mendebaleko hizkeren egitura geolinguistikoa*. Bilbo & Iruñea: Euskaltzaindia & Nafarroako Gobernua.
- ARTOLA, K. (2001). Olaizko euskal eskuizkribuak. *FLV*, 88, 485-520.
- FUNDACIÓN CAJA NAVARRA. (s. d). *Gran enciclopedia de Navarra*. Iruñea: Fundación Caja Navarra.
- GARCÍA-SANZ, Á. (2014). *Liberales navarros en la primera guerra carlista: los cuerpos francos y el motín de 1837*. Iruñea: NUP.
- IBARRA, O. (2003). Isoglosen aldaketa nafarroako zenbait hizkeratan. In J. Gorrochategui (arg.), *Basque and (Paleo) Hispanic Studies in the wake of Michelena's work: proceedings of the First Conference of the Koldo Mitxelena Chair = Koldo Mitxelena Katedraren Lehen Jardunaldietako aktak = Actas del Primer Congreso de la Cátedra Luis Michelena Koldo Mitxelena Katedraren Lehen Jardunaldietako Aktak* (349.-364. or.). Bilbo: UPV/EHU.
- IZENIK GABE. 2023. Aprendizaje dugu herrian nagusi. Txori kabi bila abila. *Pulunpe*, 235, 26.


- LEKAROZ, G. (2014). Basaburu Txikiko euskararen lekukoak (I). *FLV*, 118, 247-278.
<https://doi.org/10.35462/flv118.2>
- MITXELENA, K.; SARASOLA, I. 1987-2005. *Orotariko euskal hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- MUJIKA, J. A. (2008). Adlatiboaren berbalizazioaz. In X. Artiagoitia & J. A. Lakarra (arg.), *Gramatika jaietan. Patxi Goenagaren omenez* (ASJUren Gehigarriak 51) (605.-615. or.). Bilbo: UPV/EHU.
- OEH = Mitxelena; Sarasola (1987-2005).
- RIEZU, J. de (arg.). (1994). *Cancionero Vasco. P. Donostia* (II. Ibk.). Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- URGELL, B. (2018). Lehen Euskara Modernoa. In J. Gorrochategui, I. Igartua & J. A. Lakarra (arg.), *Euskararen historia* (543.-657. or.). Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- YRIZAR, P. (1992). *Morfología del verbo auxiliar alto navarro septentrional (estudio dialectológico) Tomo I: Subdialectos de Ulzama y de las Cinco Villas*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- ZAVALA, A. (1971). *Txirritaren bertsoak (I)*. Donostia: Auspoa.

7. ERANSKINAK

7.1 Udabe, 1826 (NEAN, Procesos, 308249)

7.1.1. Euskarazko bertsoak





Memorian daukadanak berrizque parat
 Dama erregina iguzaito lator
 ataraco Diane biraguna bat amara
 M. Ant. du icchia buntorain itura.

Dama utanen diant gortu aditua
 nula atari eizen taluete ichera
 bidan arri amun zue are plaura
 nire unben due inuetla itzara.

Ona bera burjac burien moduan
 duren onie itzago orien buruan
 Lona gadurid dandela Coman
 Naigo dute iguzitico Supermar.

Dama errei itallera auzo zait guntatu
 piperagilla diota mutillari bicati
 Labonai eragui ta bere ala pucati
 naigo auzo dama errei errela jotatu.

Superrie da aitia inuetla eta jira
 anati vera berri paperean dizea
 nerbaiteri emon diezun paracoa bide.
 Toleratit baruna etornia dize.


Cer dela uite dute bitorra galecia
 berico bere amma Supermaron sarca
 Ubeda bicitza berri bat arica
 tar gortuqui equider orain aguerica.

Itai niri emicicari sen la dindigai contra lator. M. Ant.
 itura sin q. ap. orai punque lequita habu nazi y
 respunde q. lo dno. u. latorad no firmi tamproio sustinued
 M. g. d. guren, mualian uenitir y en f. de elle q. del una

Sinto m *Juanjo de Schemique*

Tert. D. Deigo en aguda su merced continuando en esta tenencia
 hizo parecer a suplicacion y juramento. a M. Antonia
 de S. Clara natural del Lugar de Dava hija de D. Juan de
 Barbona y hermana del prior de S. Juan de S. Juan de
 merced recibio juramento en forma de juramento
 de p. p. que a su fuerza declare a continuatione lator
 dices dindigai contra la memoria un omnia ninguna uspa
 de mano M. Ant. y alabriendo a quel y mudo de D. D.
 de veinte y cuatro años las declara en la forma siguiente.
 Deben en paracoa nre boudut ori
 mpendica en dugu orian nazun

L. gura de Urrizola



Inua batz nagami amitia
 nota galeudien besteren eruditia
 berde isandean nayco delitua
 adiguideren bat dago seritua.

Derrucira etori da gure mandatuia
 Deuce laturcagu goyvan artua
 erda idugiea garra ori artua
 Uizate ichera equin peccatua.

Inua bat saquindudat merere uran
 Dama bat opatu dula beren duman
 menezacen dindela claro eta equin
 pipero pitaxen uque landaren erdian

Dama dindillaen asco rait guntatu
 pipera spilla iuten mundillari ucatu
 labandaz waqui ta bere ala pincatu
 naigo cian Dama acce urda postatu

Ura berre berria beacden moduan
 gaurra emi ez taja orien buruan
 leua galduritan laudela Cerdan
 naigo dute egeu berico Naperman.

Cerdela mite dote honra galua
 berico amitia Naperman sarrea
 Uruu bitica berri bat arrea
 beracquirqui equin urain aquacea

Amargarin berria aditi bear duru
 amia bat berre corgan ez dudu
 berre dagaquereu ligo eta umi
 berirnae eta galudeta naideru

Dupeditae ematen omite gardet ai
 hawcha bere quioni nai gundugue vici
 ortua aundirican ez dau icari

Dama dindillaen asco rait guntatu
 pipera spilla iuten mundillari ucatu
 labandaz waqui ta bere ala pincatu
 naigo cian Dama acce urda postatu

Alperrie da cutia urde eta jira
 amabi berre burri papercas dira
 nor baitac eman dieu paratec a bide
 Uizate barria urria dire

Estas unhas Cartas de q' las ha aprindido el tutejo dirigi
 das contra la Dña. M.ª Ana de Navarra en q' tengo noticia
 haya otras q' respondan de lo otro. La verdad es q' los delos
 se afirman batifaces y firmis no lo hize en merced por q' dije
 no sabia y en pie de ello yo el tutejo

Yo venito le goyo

Yo me m. Justine Schenique

En el Lugar de Berrendi dia cinco de Noviem.
 de mil ochocientos treinta y uno, el q' yo me m.

7.1.2. Itzulpena

Mi Zubillaga M^{te}. Con el objeto de q. la Real
 Caste pudiese comprender el contenido de las
 Canciones Arribalencianas, acuerdo de ser redactadas
 del idioma bencongado en el idioma español
 y dictadas por los terrijos abarrellanos por
 el infrascripto D^{no}. Fr. Segura del Rey
 antes que no lo firmase por no saber
 en su d^{to} y el de

Martino Urrizola

Admision Cancion y el de real inf. que las
 Canciones citadas por los terrijos tres y
 cuatro en el idioma bencongado o traduci-
 das al Castellano sean en

Canciones dirigidas contra
 España M^{te} Alvar, citadas p. las
 terrijos tres M^{te} Antón a Arce

H

Acuerdo principia a poner verso
 en el d^{to} el aprend. st^o en el d^{to}
 por los moros. Etengo ahora lo que aprend. de
 en la parte de chebari. Ha tres a la moria de chebari

No tengo que principiar a poner verso
 de lo que he visto no hace mucho tiempo
 una mora quisiere en el d^{to} ser buena
 Pero aun no tiene bastante grado.

Como el d^{to} o q^o de moros, que son, bnd dicen ha dicho
 por medio de los moros, p^o ante Qnd.
 una bocarera (o emburera) es Qnd.
 ahora tiene Qnd. por ser moros bnd

Hay verso nuevo bonito por cierto
 por dama galana, p^o en Udabe
 hidas las dos, en el barana han bnd
 ahora han parecido un secreto.

El guia de bnd

5^a Hija de su Alcaide por que dió el bato hecho
Esa dama tendrá el dote recogido
Su madre lo tendrá dentro de la arca
Por que tiene proporcionada alguna casa grande

6 - Señores han tenido bastante que hacer
al aprender quinieron que entró al rezo
Pero este moro ha tenido muchos amigos
Y me parece que por él vendrá libre

7 - En el mes de septiembre poniendo barias
El modo de vivir de ellas ahora enojado
Se explique bien me están encargando
Esa dama pover quien es lo la moro

8 - Una vez marche a su tierra
Un sola y benga bida arribas
Y yo la di por respueita tenga q. ir adelante
Y también tengo gracia

9 - Señores era dama joven a su madre que ir
en alguna casa buena tendrá q. entrar
Su madre también el dote tendrá de punto
Y la sembrara su madre con el arno o rpa de b. n.

10 - Madre con dos hijas dando una zurra al padre,
En la casa de beherria de Odaba mala ocupacion;
Atun por lo que ablan las gentes no se a berquien
el cambio por la ama sea el recado q. b. n.

11 - Sorganiza, como y magras dicen
dicen sean marchado los dos puntos;
No hemos sabido mal sus secretos,
Y ahora piaran con algunas personas

12 - Al cura te han hecho bastante gracia
y por demandar beage, te han hecho enfadar
al aprender, quarian de te hiciera salir del pueblo
y al parecer por falta de dinero se te ha quedado


3 - Dejando al aprendiz ha tomado al vela (an de dorrea)
 ahora los veno nuevo por ero tiene loyd.
 Irrosa a nobia esta bnd. tomanda a agua.
 Pero antes con antes tendra bnd. q. bñitauo.
 4 - Toben principio bnd. de tras de los mojos
 todos enoran en el coran de bnd.
 Mas de la cabera ha dicho bnd. benga bnd. por la noche
 Agura pararemos la noche en la cama
 5 - Quince bera aharay son en el sayal.
 Y lo tengo del phica cuando tenga tiempo
 Derrantes fama ha ha estado tiempo
 Para una dama joven q. esta en la casa de chebeni


Canciones dirigidas contra el Ayuntamiento
 Citadas por el terrizo Juan de Benito Gurrutia


Lo que tengo en la memoria debia parer
 Dama ciega da este bnd. ancha
 Mustraban a bnd. muchas fama
 Mustraban a bnd. nombre, apellido turo
 Dama la dare a bnd. Claro a bnd. ande
 Como bobio bnd. de ba falbe a fama
 Entonces tomo bnd. a su placer
 Muchos dicen q. no es bnd. doncella.
 7a - Por una for a erro yo atun did
 Por q. pierden el credito de otros (o quitan el credito a otros)
 Teniendo ella barrante deliso
 Algún amigo era bien verbid
 4a - De lejos ha venido nuestro recado (o sea hecho publico)
 Y con deicos lo tenemos en la memoria
 No se tendra en olvido ese recado
 Cometieron pecado de la Iglesia a fama
 8a - He sabido una cosa yo en el pueblo
 Que una dama le haubn encontrado en su frente
 Que ablaba Claro y con bndad
 En medio de la heredad por el tipo opil (no se sabe el sentido)
 q. quiere darle, pues
 pipen opil es como una
 torquillo, aunque se
 gura de brecocho

7.2. Doneztebe, 1831 (NEAN, Procesos, 34356, 72r-73v, 26r-27v)

7.2.1 Euskarazko bertsoak







Nafarroan ez dago
alaxo mutillie
mumbaiten ere badu
bere bat isillie
guzdea egon arren
ateac isillie
noiz baita agueruocota
ill edo vixirie

73
Gei anore emendaurca
gaur bere carquan
ca noiz arquirondan
alaxo graduan
inore ez du berdirer
Epaña barruan
ofala barmengoque
ni arren barruan

7.2.2. Itzulpena

